

BESTE HITZAK-OTHER WORDS PROGRAMAREN ZUZENDARITZA
ARTISTIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO
LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO
ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA
3. ESLEIPEN PROZEDURA
4. ALDAERAK
5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA
6. IRAUPENA
7. KONTRATUAREN PREZIOA
8. PREZIOA ORDAINTZEA
9. PREZIOAK BERRIKUSTEA
10. PUBLIZITATEA
11. BERMEAK
12. GAITASUN BALDINTZAK
13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA
14. BALORAZIO IRIZPIDEAK
15. EBALUAZIO BATZORDEA
16. PROPOSAMENAK IREKITZEA
17. KONTRATUA ESLEITZEA
18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA
19. KONTRATUAREN ARDURADUNA
20. KONTRATUA GAUZATZEA
21. KONTRATUKO OINARRIZKO BETEBEHARRAK
22. DATU PERTSONALAK BABESTEA
23. KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BEHARRA

24.JABETZA INTELEKTUALA

25.ZEHAPENAK

26.KONTRATUA LAGATZEA

27.AZPIKONTRATAZIOA

28.KONTRATUA ALDATZEA

29.KONTRATUA ETETEA

30.PRESTAZIOA JASOTZEA

31.KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

32.ARAUBIDE JURIDIKOA

33.ESKUMENeko JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO BITARTEKOA AUKERATZEA

III. ERANSKINA. AITORTZA ARDURATSUA

IV. D. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

V. ERANSKINA. AITORTZA ARDURATSUA, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETE DIRELA EGIAZTATUZ

VI. ERANSKINA. ADIERAZPENEN NOTARIO AKTAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK GUTXIENeko GIZA BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA ZIURTATZEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN BITARTEKOAK ERABILIKO BADITU

BESTE HITZAK-OTHER WORDS PROGRAMAREN ZUZENDARITZA ARTISTIKOA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Preskripzio Teknikoen Orriko **2. Klausulak** zehazten duen *Beste Hitzak-Other Words* programaren zuzendaritza artistikoko zerbitzua (aurrerantzean, Programa), aipatuaren diseinu, garapen, planifikazio eta kudeaketa hartzen dituen Orri honetan eta Preskripzio Teknikoen Orrian adierazitakoarekin bat.

Zehazki, eman beharreko zerbitzua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Donostia Kultura) zuzendaritza, gainbegiratze eta kontrolpean, ondoko jardueretan gauzatzen da:

- Programa diseinatu, garatu eta planifikatzea, Donostia Kulturak eginiko zirriborroari jarraiki.
- Programan parte hartuko duten bazkide europarrak koordinatzea.
- Harremanak hastea eta mantentzea bazkide europarrek.
- Bazkideak koordinatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sortzea.
- Donostia Kulturako tokiko laguntzaileekin harremanak izatea Programa gauzatzerakoan.
- Idazleak hautatzeko deialdiak koordinatzea.
- Harreman zuzena idazleekin eta Programaren baitan sor litezken arazoak konpontzea.
- Programan parte hartuko duten idazleen egonaldiak koordinatzea eta beren garapen egokia bermatzea.
- Itzulpenak koordinatzea eta kudeatzea.
- EACEAk (Educational, Audiovisual and Culture Executive Agency) eskatu dituen dokumentuak sortzea, Europako Batzordeak Programa finantzatzeko eskaini duen diru-laguntzaren baitan.
- Programaren aurrekontua gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Web plataformaren edukia kudeatzea.
- Donostia Kulturak zehazten dituen gizarte-sareak kudeatzea.
- Balizko bidaiak bazkide europarren lurraldetara, ezohiko bilerak egiteko.
- Prentsa eta harreman publikoak koordinatzea eta kudeatzea.
- Aipatu Programaren diseinua, garapen, planifikazio eta kudeaketari loturiko beste edozein jarduera.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratugilea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (aurrerantzean, Donostia Kultura).

Donostia Kulturako Zuzendari Kudeatzailea da kontratazio-organoa.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, eskaintza ekonomikorik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileari, Orri honetan xedaturiko balorazio-irizpideekin bat.

4. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartuko.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Kontratu-izaera dute, esleipena ondoren egiten den kontratuaz gain, Orri honek eta Preskripzio Teknikoen Orriak eta esleipendunak aurkezten duen azken eskaintzak.

Esleipendunak aipatu dokumentuak sinatuko ditu, guztiak onartzen dituela baieztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratuak 2019ko ekainaren 30era arte iraungo du berau formalizatu eta hurrengo egunetik hasita. Ez da luzapenik egongo.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 90.900 eurokoa da, Balio Erantsiaren Gainera Zerga (BEZ) kanpo.

Lizitatzailerek aurkezturiko proposamen ekonomikoa aipatu kopurutik behera gera daiteke.

Lizitatzailerek aurkeztutako prezioan aipatu zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren gastu guztiak sartuta egongo dira, Orri honek eta Preskripzio Teknikoen Orriak diotenari jarraiki. Azken prezioan sartuta egon beharko litezkeen kontzeptuak ezingo dira esleipena egin eta gero fakturatu.

Lizitatzailerek eskainitako prezioaren barruan, zerbitzua eskaintzeko edozein kontzeptu, iragarkien moduluei dagozkien gastu guztiak eta zerbitzua eskaintzeko behar diren langile guztien gastuak barne hartuta daudela ulertuko da (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzaz, oporrak eta aparteko ordainsariak, baja edo gaixotasunagatikoko bajengatikoko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, eta abar), bai eta zerbitzuak sortzen dituen zergak (BEZa izan ezik), gainerako aseguruak, baimenak, garraio-gastuak (Programan parte hartzen duten bazkideen lurraldetara eginiko bidaiak salbu, Donostia Kulturak ordaindu beharko baititu) eta gastu orokorrak ere.

Halaber, lizitatzailleek proposaturiko prezioaren barruan zerbitzua gauzatzeko beharko diren bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, instrumentu, informatika-ekipamendu eta gailu guztiak egongo dira ere.

Donostia Kulturak bere gain hartu behar duen BEZa, bereizirik adieraziko dute lizitatzailleek.

Esleipendunak lizitazioaren deialdia eta kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak dakarren gastua ordainduko du.

Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina Onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak (aurrerantzean, SPKLTB) bere 88. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, 90.900 eurokoa da.

Aurrekontu hori kalkulatzeko kontuan hartu da SPKLTBren 88. artikuluan xedatutakoa, hau da, kontratuak irauten duen denbora guztiari dagokion balio guztia.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Prezioa hileroko ordainduko da, dagokion faktura Donostia Kulturari aurkeztu eta horren oniritzia izan eta gero.

Donostia Kulturari eskainitako zerbitzuengatik hileroko ordainduko den prezioa kalkulatzeko esleipendunak Orri honen **1. Klausulan** zehazturiko zerbitzuak emateko proposatu zuen prezioa kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik 2019ko ekainaren 30a arte dauden hilabeteen kopuruaz zatituko da.

Hileroko prezioa kalkulatzeko, kontratua formalizatu den hilabetea hilabete osotzat hartuko da, kontratua formalizatzen den unean igarotako egunak direnak direla; honela, Donostia Kulturak kopuru berbera ordainduko du hileroko, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Enpresa kontratistak hilabete bati dagokion hileroko faktura hurrengo hilabeteko lehen hamabost egun naturalen barruan bidaliko du.

Donostia Kulturak fakturan sarturiko zerbitzuei dagokien hilabetea bukatu eta hogeita hamar egun naturaleko epea izango du prezioa ordaintzeko, beti ere faktura aurreko epearen barruan bidali bada eta Donostia Kulturako onespena badu.

Ez da ordainduko Plegu honen kontratu-xedetik kanpo eskainitako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, Donostia Kulturak aldeztu aurretik berariaz eskatu eta onartu ez duen lan edo zerbitzurik.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta baita Donostia Kulturako kontratatzailearen profilean ere.

Kontratuaren esleipena Donostia Kulturako kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Donostia Kulturako kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Aipatu profilera sartzeko, ondoko webgunea erabiliko da:
www.donostiakultura.com

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatuko.

Behin betiko bermea: Kontratuaren esleipendunak, aipatuaren gauzatzea bermatzeko, 1.000 euroko behin betiko bermea jarri beharko du.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea izango du aipatu bermea aurkezteko, Donostia Kulturak horren inguruan bidalitako eskaria jaso eta hurrengo egunetik hasita.

SPKLTBren 96. artikuluan xedaturiko bitartekoetako edozein erabil dezake horretarako.

Abal moduan aurkeztuz gero, aipatuak Orri honen I. Eranskinean jasotako eredua jarraituko du.

Eskudirutan aurkeztuz gero, Kutzako 2095 0611 09 1061519723 kontuan sartuko da.

Bermearen gauzatzearen egiaztatzea ezingo da bitarteko elektronikoen bidez egin.

Bermearen itzulpena SPKLTBren 102. artikulua dioenaren arabera egingo da, behin bermearen epea bukatuta eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete eta gero.

Bermearen itzulpena Donostia Kulturako aldeko txostena badago egingo da.

Esleipendunari ezarritako zehapen edo kalte-ordainak bermearen bidez burutuko balira, aipatuak 15 egun naturaleko epea izango du bermea osatzeko, dagokion kopuruaz, exekuzioaren egunetik hasita. Egin ezean, kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da.

Kontratuan eginiko aldaketa baten ondorioz bere prezioa aldatuko balitz bermea egokitu beharko da ere, prezio berriarekiko proportzio zuzena gorde dezan. Horretarako, enpresak 15 egun naturaleko epea izango du, aldaketa-jakinazpena jaso duen egunetik hasita.

Orri honek xedatu ez dituen gaiei dagokienean, SPKLTBren 95. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. GAITASUN BALDINTZAK

Donostia Kulturarekin kontratatzeko gaitasuna dute pertsona natural edo juridikoek, espainolek eta atzerrikoek, jarduteko gaitasuna badute eta kontratatzeko debekurik ez badute.

Lizitaziotik kanpo geldituko dira baldintza teknikoen edo kontratua prestatzeko dokumentuen idazketan parte hartu duten enpresek, beren partaidetza lehia librearen aurka badoa edo tratamendu pribilegiatua izango bada beste enpresa lizitatzailerikiko.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eska daitekeen gaitasun profesional edo enpresariala izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren helburu den zerbitzuaren prestazioak beren Estatutu edo Sorrera-arauen xede, helburu edo jarduera-esparruaren barruan izango dituzte kontratuaren esleipendunak izan nahi badute.

Donostia Kulturarekin kontratatzeko gai izango dira, nolana ere, Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresak, beren jatorriko Estatuko legeen arabera kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko gai badira; SPKLTBren 58. artikulua dioena aplikatuko da ere.

Aipatu enpresen jatorriko Estatuko legeak baimen berezia izatea edo elkarte zehatz bateko kide izatea agintzen badu aipatu zerbitzuak eman ahal izateko, lizitatzailerik baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko Estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoek, beren gaitasuna frogatzeko, Espainiak beren Estatuan duen Misio Diplomatiko Egonkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurraldean duen Kontsul Bulegoaren txostena aurkeztu beharko dute. Aipatu txostenak atzerriko enpresaren jatorri den Estatuak enpresa espainiarrei Administrazioarekin eta SPKLTBren 3. artikuluan xedatu sektore publikoko erakunde, elkarte edo entitateekin kontratatzeko gaitasuna ematen diela - baldintza berdintsuetan- frogatu beharko du.

Donostia Kulturarekin kontratatzeko gai izango dira xede horretarako eginikoaldi baterako enpresa-elkarteak. Horien eskritura publikoa kontratuesleipena formalizatzerakoan egin daiteke; SPKLTBren 59. artikulua dioena aplikagarria da.

Lizitatzailleek pertsona bat atxikiko diote gutxienez kontratuaren gauzatzeari. Pertsona horrek ondokoak bete beharko ditu:

-unibertsitate lizentziaduna edo graduduna izatea.

-3 urteko eskarmentua izatea, gutxienez, kontratuaren xede diren jardueren antzekoak, edo berdinak, gauzatzen: kultura eta giza zientzien arloa: literatura, edizioa, itzulpenak eta interpretazioak, Europako kultura eta hizkuntza aniztasuna, kudeaketa kulturala, etab.).

-Webguneak eta gizarte-sareen edukiak kudeatzen 3 lan gutxienez egin dituela edo 50 ordu gutxienez webguneen eta gizarte-sareen edukiak kudeatzeari atxiki dizkiola ziurtatuko du.

-Gaitasun nahikoa euskaraz eta ingeleseraz: C1 maila edo baliokidea. Aipatu gaitasuna frogatzeko, C1 maila edo baliokidea bi hizkuntzatan ziurtatzen duten egiaztagirak aurkeztuko dira.

Aipatu konpromisoa kontratuko oinarritzko betebeharra izango da SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, konpromisorik ez hartzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo Donostia Kulturak.

Enpresa kontratistak kontratuaren gauzatzeari atxiki dion lan-taldea bere kabuz aldatuko balu, kontratua bertan behera utzi ordez Donostia Kulturak kendutako langileak beren lanpostuetara bueltatzeko eska diezaioke edo, bestela, azken hori ezinezkoa balitz kontratistaren ardura ez diren arrazoiengatik, prestakuntza eta eskarmentu berdinak dituen beste pertsonekin berehala ordezkatzeko eska diezaioke. Ordezkoek, edozein kasutan, Donostia Kulturaren oniritzia jaso beharko dute.

Lizitatzailleek gutxieneko giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko beste entitate batzuen baliabideak erabiliko badute, bi entitateen arteko loturaren izaera juridikoa dena dela, dokumentua aurkeztu beharko dute (**VI. Eranskin**eko eredu erabiliz). Inplikaturako entitateek, aipatuan, ondokoa aitortu beharko dute: lizitatzailleak/ek lortu nahi du(t)en lizitazioaren baldintzen eragin guztiak ezagutzen ditu(zt)ela (egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuz **13. Klausulak** dioenarekin bat) eta borondate atzeraezina dutela lizitatzaillea esleipendun izanez gero kontratua exekutatze beharrezkoak diren bitarteko guztiak bere esku jartzeko (Kode Zibilaren 1257.2 artikulua dioena espresuki onartuz, bere ordezkapena edo aldaketa Administrazioaren oniritziaren mende geldituko delarik). Aipatu dokumentuaren aurkezpenak konpromisoaren onarpena ekarriko du Donostia Kulturaren aldetik, aipatu lizitatzaillea esleipendun izendatua izango balitz.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Proposamenak aurkeztearekin batera lizitatzailleak Orri hau, Preskripzio Teknikoen Orria eta kontratuko beste dokumentu guztiak baldintzarik gabe, eta salbuespenik gabe, onartzen ditu.

Orri hau eta Preskripzio Teknikoen Orria kontratatzailearen profilean daude eskuragarri. Aipatuan sartzeko, <http://www.donostiakultura.com> erabil daiteke.

Era berean, aipatu dokumentazioa DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan azter daiteke (Konstituzio Plaza 1, 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30etara, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko azken egunera arte.

Preskripzio Teknikoen Orriko **2. Klausulak** dioenarekin bat, Donostia Kulturak Programaren zirriborroa lizitazioan parte hartu nahi dutenen esku utziko du, aurreko paragrafoan ezarritako leku, egun eta ordutegian, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartu ahal izateko enpresa lizitatzailleak **eskura** aurkeztu beharko dituzte, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN aipatu bulegoetan eta Erregistro ordutegian (astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, udako ordutegia salbu, 9:00etatik 13:30etara), eta epe barruan, HIRU GUTUN-AZAL ITXI (A, B eta C), ondoren zehaztuko diren dokumentuekin. Gutun-azaletan parte hartu nahi den lehiaketa, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-deiturak eta bere kargua, telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoko helbidea eta, halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoa, Orri honen **II. Eranskinak** agertzen duen eredia jarraituko duena.

Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna balitz epea hurrengo baliodun egunera arte luzatuko litzateke.

Gutun-azal bakoitzak ondoren ezarritako dokumentuak hartuko ditu eta sarturiko dokumentu guztien zerrenda zenbakitua izango du ere.

A GUTUN-AZALA.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Lizitatzailleak kontratatzeko gaitasunari buruzko gutun-azal bat aurkeztuko dute, ondoko dokumentuekin:

1. Lizitatzaillearen eta, dagokionean, bere ordezkarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Pertsona juridikoa diren enpresarien jarduteko gaitasuna beren jarduna arautzen duten sortze-dokumentua, Sorrera-arau edo sortze-ekitaldiaren bidez frogatuko da. Behar bezala erregistratuta egon beharko dute dagozkien Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

- Espainiarrak izan ez baina Europar Batasuneko Estatu kideetako hiritarrak diren enpresarien jarduteko gaitasuna beren enpresa hartzen duen Estatuko

legearen arabera dagokien Erregistroan emandako izen-ematearen bidez edo zinpeko aitorten edo ziurtagiri bat aurkeztuz frogatuko da, Europako xedapenak diotenarekin bat.

- Europar Batasunetik kanpoko Estatuetakoen enpresariak Espainiak beren Estatuan duen Misio Diplomatiko Egonkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurraldean duen Kontsul Bulegoaren txostena aurkeztuz frogatu beharko dute beren jarduteko gaitasuna. Aipatu txostenak atzerriko enpresaren jatorri den Estatuak enpresa espainiarrei Administrazioarekin eta SPKLTBren 3. artikuluan xedatu sektore publikoko erakunde, elkarte edo entitateekin kontratatzekeko gaitasuna ematen diela -baldintza berdintsuetan- frogatu beharko du.

- Pertsona fisikoa diren enpresariak, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, Nortasun Agiri Nazionala edo beren Estatuetakoen baliokidea aurkeztu beharko dute.

- Proposamenak hirugarrenen izenean sinatzen dutenek beren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta ahalorde askietsiak ere horretarako. Enpresa pertsona juridikoa balitz, botereak Merkataritza-erregistroan egon beharko du Merkataritza-erregistroaren Araudiko 94. artikulua horrela eskatzen duenean; edo, bestela, dagokion Erregistro Publikoan, pertsona juridikoaren arabera.

- Aldi baterako elkartean parte hartu nahi duten enpresariak kide diren izenak eta baldintzak eta bakoitzaren partaidetza azalduko dute; halaber, esleipendun suertatuz gero aldi baterako elkartea formalki sortuko dutelaren konpromisoa. Aldi baterako elkartean parte hartu nahi duten enpresariak solidaritatez geldituko dira behartuta eta elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatu beharko dute, botere nahikoa izango duena kontratuaren ondorioz sor daitezkeen eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratuak dirauen bitartean, kopuru handiak kobratu edo ordaintzeko eman ditzaketen botere erkidetuaren existentziari kalterik egin gabe.

Dokumentu guztien orijinala, edo konpultsatutako kopia egokia, aurkeztuko da.

2. **III. Eranskinak** dakarren ereduarekin bat doan aitortza arduratsua, lizitatzailerak SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatzekeko debekurik ez duela jaso adieraziz.

Aipatu aitortzak beste berariazko aitortza bat eramango du, lizitatzailerak zerga eta Gizarte Segurantzaren arloko indarreko betebeharrak guztiak beteta dituela adieraziz. Proposamen ekonomiko hoberena aurkeztzen dituen lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea izango du, Donostia Kulturak eskaria egin eta hurrengo egunetik hasita, baldintza hau egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezteko.

3. Konpromisoa, esleipendun suertatuz gero **12. Klausulan** ezarritako pertsona kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaiola aitortuz.

Aipatu konpromisoa kontratuko oinarritzko betebeharra izango da SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, konpromisorik ez hartzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo Donostia Kulturak.

4. Bere kasuan, Adierazpenen akta, gutxieneko baliabideak atxikitze konpromisoa egiaztatze lizitatzailleak beste erakundeen bitartekoak erabiliko baditu, **VI. Eranskinen** ereduarekin bat.

5. Atzerriko enpresek Espainiako auzitegi eta tribunaleko jurisdikzioaren mende jarriko direla aitortu beharko dute espresuki, kontratuaren ondorioz zuzenki edo zeharkakoki sortu litezkeen auziak konpondu ahal izateko; bere kasuan, izan dezakeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko dio lizitatzailleak.

6. Jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoa, Orri honen **II. Eranskinak** daukan ereduarekin bat.

7. Aitortza arduratsua, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete direla frogatzeko, **V. Eranskinean** datorren ereduarekin bat.

Oharrak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten lizitatzailleak, 1. paragrafoan xedaturiko dokumentuen orde, Erregistroko abokatu arduradunak sinaturiko ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete. Aipatu ziurtagiriarekin batera, lizitatzailleak sinaturiko aitortza arduratsu bat aurkeztuko da, dokumentuak zehazten dituen baldintzak aldatu ez direla aitortuz.
- b) Donostia Kulturak egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatzailleak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatze.
- c) Atzerriko enpresen dokumentu guztiak gazteleraz edo bere kasuan euskaraz egongo dira, ofizialki itzulita.

B.- Gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKO"

Lizitatzailleak proposamen teknikoari dagokion gutun-azal bat aurkeztu beharko dute, ondoko dokumentuekin:

- **Programa diseinatzeko, garatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko proposamena.**

Lizitatzailleak Programa diseinatzeko, garatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko proposamena aurkeztu beharko dute, ondoko osagaiekin:

- Programako edukiaren definizioa
- Programan zehar garatuko diren jarduerak
- gauzatuko diren lanen gutxi gorabeherako egutegia

- lan-metodologia
- Programarekin lortu nahi diren helburuak

Halaber, Programaren diseinua, garapena, planifikazioa eta kudeaketari dagokionean interesgarritzat jotzen dituzten eta, finean, kontratuaren berriazko eginkizunak nola gauzatuko diren ikustea ahalbidetuko duten beste osagai guztiak sartuko dituzte ere.

Programa diseinatzeko, garatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko proposamena ez da loteslea izango; Donostia Kulturak alda dezake.

• Giza baliabideak

Lizitazio honen abiapuntua da kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion langileen kalitateak kontratuaren gauzatzea nabarmenki baldintza dezakeela, zerbitzu intelektualei loturiko kontratua den heinean.

Testuinguru horretan, Orri honen **12. Klausulak** kontratuaren exekuziorako xedaturiko gutxieneko baliabideak baino bi langile gehiago atxiki dakizkioke, gehienez, zerbitzuari.

Era berean, **12. Klausulak** aurreikusten duen gutxieneko langileari dagokionean, ezarritako baldintza minimoez haraindi doazen baldintzak proposa daitezke ere.

Bi konpromisoak hurrengo Klausulan ezarritako baldintzen arabera baloratuak izan daitezke.

Lizitatzailerak tentu handiz bete beharko ditu gutun-azal honetan sartuko diren dokumentuak, eduki eta formatuari dagokienean zehaztu jarraibideak jarraituz. Era berean, ezingo da eskaintzaren osagai ekonomikoak iragar edo iradoki ditzakeen erreferentziarik sartu.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak alboratu eta prozeduratik kanpo geldituko dira.

Donostia Kulturak egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatzailerak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatzeko.

Gutun-azal honetan eskatu osagai guztiak aurkezten ez dituzten eskaintzak alboratu egingo dira.

C Gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitatzailerak beren proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute. Aipatua Orri honen **IV. D Eranskinean** sarturiko ereduarekin bat joango da.

Donostia Kulturak, esleipena aurretik zein ondoren eta kontratuaren gauzatzean zehar, A, B eta C gutun-azaletan sarturiko edukien benetakotasuna egiaztatu dezake, eta baita Preskripzio Teknikoen Orrian xedaturiko horiena ere. Enpresak aurkezturiko datu eta zirkunstantzien

faltsutasuna kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa da, kontratistaren ardurako ez-betetzea den heinean.

Kontratua esleitu eta urtebetera, Donostia Kulturak lizitatzailerak aurkezturiko dokumentuak suntsi ditzake, azken horiek aurretik erretiratu ezean.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak ondokoak dira, dagozkien zuhurtasunaz azalduta:

a) Proposamen teknikoa: 80 puntu gehienez.

1. Memoria teknikoa: 40 puntu gehienez.

Ondokoak baloratuko dira:

- Proposamenaren eta Donostia Kulturak eginiko Programa zirriborroaren parametroen arteko egokitasuna.
- Programa diseinatzeko, garatzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko proposamena egiterakoan Programaren bazkide europarren errealitate zehatzetara eskaini zaien arreta eta begirunea (hizkuntza, kultura, gizartea, etab.).
- Eduki eta jarduera osagarriak, zirriborroan xedaturikoez gain, Programa aberasteko.
- Proposatutako lan-metodologiaren zorroztasun, malgutasun eta operatibitatea.
- Zehazturiko helburuen egingarritasuna

2. Giza baliabideak: 40 puntu gehienez.

Orri honen **12. Klausulak** eskatzen duen atxikitze-konpromisoan ezarritako gutxieneko giza baliabideen prestakuntza eta egokitasuna baloratuko da, bai eta Orri honen **12. Klausulak** eskatzen duen atxikitze-konpromisoan ezarritako gutxieneko giza baliabideez gain atxikiko diren giza baliabide osagarrien prestakuntza eta egokitasuna ere. Kualifikazio eta egokitasuna zehazterakoan kontratua exekutatzekoan gauzatuko diren jarduerekin loturiko gaietan duen eskarmentua, tituluak eta prestakuntza aztertuko dira ere (kultura eta giza zientzien arloak: literatura, edizioa, itzulpenak eta interpretazioak, Europako kultura eta hizkuntza aniztasuna, kudeaketa kulturala, etab.), beste hizkuntzen ezagutza eta Europa mailako programen gestioan duen ezagutza eta eskarmentua.

b) Proposamen ekonomikoa: 20 puntu gehienez.

Proposamen ekonomikoari dagozkion puntuak ondoko formularen arabera baloratuko dira:

$$P = \text{Gehienezko puntuazioa} \times (1 - ((B_{\max} - B_n) / B_{\max}))$$

Non:

P = baloratu den lizitatzailleak lortu duen puntuazioa.

Beharapena = aurrekontua eta aurkeztu den eskaintzaren arteko diferentzia, eurotan

N eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren kopurua.

B_{max} = prezio txikiena duen eskaintzak suposatzen duen aurrekontuarekiko beharapena

B_n = N eskaintzaren aurrekontuarekiko beharapena

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko ebaluazio-batzordea ondoko kideez osatuta egongo da:

- DONOSTIA KULTURAKo Kontratazio Saileko ordezkari bat.
- Donostia Kulturako bi ordezkari.
- Donostia / San Sebastián 2016 Fundazioko ordezkari bat.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio-batzordeak, lehenik eta behin, A gutun-azalean ("Kontratatzeko Gaitasuna") aurkeztu dokumentuak aztertuko ditu, epe eta formari dagokienean, eta zuzen daitezkeen akats edo hutsuneak ikusiz gero 3 egun balioduneko epea emango dio lizitatzailleari, aipatuak zuzen ditzan.

Ondoren, proposamen teknikoa daraman B gutun-azala irekiko da, aztertu eta baloratu ahal izateko.

C gutun-azalean sartu proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da. **II. Eranskinarekin** bat zehazturiko jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoaren bidez, onarturiko lizitatzaille guztiek proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoaren data, ordua eta lekua jasoko dituzte. Datu horiek, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira (www.donostiakultura.com), 48 orduko gutxieneko aurrerapenarekin.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoaren hasieran, bertaratu lizitatzailleek beren proposamen teknikoaren balorazioa jasoko dute, beti ere horietako batek aipatua eskatzen duenean.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoa bukatuta, beren azterketa eta balorazioa hasiko da.

Ebaluazio-batzordeak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, APKLAO) 84. artikuluan xedaturiko egoeretako batean dauden proposamenak baztertuko ditu eta aurkeztu proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio-organoari, beheranzko ordenan eta **14. Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideei jarraiki, eta eskaintza ekonomiko abantailatsuena identifikatuko du.

Bere proposamena egin aurretik, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eska ditzake.

Ebaluazio-batzordearen proposamena txosten juridiko baten xede izango da.

Ebaluazio-batzordeak eskaintza ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez dakar inolako eskubiderik lizitatzailerik horren alde.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailerari ondoko dokumentuak aurkeztea eskatuko dio, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasiko den hamar egun balioduneko epean.

- Zerga eta Gizarte Segurantzaren arloetako betebeharrak guztiak beteta dituela egiaztatzen duten dokumentuak.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta emanda dagoela egiaztatu beharko du, kontratuari dagokion epigrafean, alta dokumentua aurkeztuz ekitaldi honetako bada edo zergaren azken ordainagiria aurkeztuz beste kasu guztietan. Nolanahi ere, zerga horretatik baja hartu ez dela adieraziko duen aitortza arduratsu bat aurkeztu beharko da.

- Orri honen **11. Klausulak** aurreikusten duen behin betiko bermea aurkeztu dela egiaztatzen duen agiria.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu lizitazio-iragarkiaren gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.
- Dagokionean, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu dela egiaztatzeko agiria. Aldi baterako elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da eta horrek kontratua amaitu arte sortuko diren eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango ditu.
- Eskaintzan konprometitu diren giza baliabideak egiaz esleitu direla frogatzeko dokumentuak.

Kontratuaren gauzatzeari atxikitzeko konprometitu diren giza baliabideei dagokienez, Orri honen **12. Klausulak** zehazten duen gutxienezko kopurua izan edo **13. Klausulak** aurreikusten dituen giza baliabide osagarriak izan, aukeratu lizitatzailerik ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Kontratuaren gauzatzeari atxiki zaizkion pertsona guztien identifikazioa, izen-deiturez, beren curriculum vitae eta ondokoak adieraziko dituzten fitxekin batera:
 - Titulu akademiko ofiziala.
 - Eskarmentua dagokion arloan.
 - Hizkuntzei dagokienean eskaturikoak betetzen direla ziurtatzeko dokumentuak.
- Giza baliabide guztiak egiaz esleitu direla frogatzen dituzten agiriak.

Donostia Kulturak egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatzailleak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatzeko.

Adierazi beharra dago Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DPBLO, aurrerantzean) diotenari jarraiki eta giza baliabideei buruzko dokumentu horiek daramaten informazioaren izaera ikusita, (i) horien pilaketa eta trataera datu pertsonalen tratamendua suposatuko duela eta aukeratu lizitatzaillea izango dela Tratamenduaren Arduraduna; eta (ii) lizitatzailleak proposamenaren baitan aipatu datuak Kontratazio-organoaren esku uzteak datu horien lagapena suposatzen duela, lizitatzaillea lagatzailea delarik.

Eragin horietarako, aukeratu lizitatzaillea aurreko paragrafoan zehazturiko datuen tratamendu eta lagapenaren inguruan DPBLOk dioena betetzera behartuta dago. Zehazki, eta bestelako betebeharrerik kalterik egin gabe, Tratamenduaren Arduradun den heinean aukeratu lizitatzailleak DPBLOren 11. artikuluan xedaturikoa bete beharko du eta bere ardura bakarra izango da interesatuen oniritzi kontziente eta informatua lortzea datu horien lagapenerako. Aipatua ekintza Kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

Aipatu betebeharra epe barruan beteko ez balu, lizitatzailleak bere eskaintza kendu egin duela ulertuko da eta, ondorioz, dokumentu berdinak eskatuko zaizkio ondorengo lizitatzaileri, eskaintzen sailkapenaren arabera.

Kontratazio-organoak bost egun balioduneko epea izango du, aipatu dokumentuak jaso eta hurrengo egunetik hasita, eta bi hilabeteko epea proposamenak irekitzen diren egunetik hasita, kontratua esleitzeko.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoituan emango du esleipena, lizitatzailleei Orri honen **II. Eranskinean** ezarritako ereduaren arabera zehaztu bitartekoak erabiliz jakinaraziko die eta Donostia Kulturako kontratatzailearen profilean argitaratuko du.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean osatuko da.

Kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko den hamabost egun balioduneko epean, eta dokumentua nahikoa izango da edozein erregistro publikotan gordetzeko.

Esleipendunak, halere, kontratuaren eskritura publikoa egitea eska dezake. Kasu horretan, berak ordainduko ditu formalizazio-gastuak.

Kontratistaren ardura diren arrazoiak direla medio ezinezkoa balitz kontratua epe barruan formalizatzea Donostia Kulturak **17. Klausulan** xedaturiko dokumentuak aurkeztea eska diezaieke hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzailerei; hamar egun balioduneko epea izango dute horretarako.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Bere eginkizuna izango da gauzatzea gainbegiratzea eta adostutako zerbitzuaren garapen egokia bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta argibideak eskaintzea, aipatu organoak eman dizkion gaitasunen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izango da, Donostia Kulturari lotuta ala kanpoko.

Kontratuaren arduradunak emaniko argibideak halabeharrezkoak izango dira kontratistarentzat.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua ondoko baldintzen arabera gauzatuko da:

- a) Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.
- b) Kontratua bere baldintza, Klausula Ekonomiko Administrazioen Orria, Preskripzio Teknikoen Orria, enpresa kontratistak aurkeztu duen eskaintza eta Donostia Kulturak ematen duen jarraibideen arabera gauzatuko da.
- c) Donostia Kulturak kontratu-betebeharrak betetzen direla eta behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu, gainbegiratu eta ikuskatu dezake, nahi duenean eta nahi duen moduan.

Horretarako, Donostia Kulturak egoki deritzon kanpoko laguntza guztiak eska ditzake kontratu-betebeharren betetzea eta egindako lanaren kalitate-maila aproposa egiaztatu edo auditoria egin ahal izateko.

Enpresa kontratista zerbitzuari buruz eskatzen zaizkion datu guztiak ematera behartuta dago eta beharrezko laguntza guztia eskainiko du, inolako kosturik gabe, eta kontratatu diren zerbitzuei loturiko lan eta administrazio arloetako dokumentuak aurkeztuko beharko ditu ere.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko Donostia Kulturatik egiten diren ikuskaritza- eta kontrol-lanetan.

d) Kontratuaren gauzatzerako erabilitako langileei dagokienean, enpresa kontratistak zerga eta lan arloetako, Gizarte Segurantzako eta Lan Arriskuen Prebentzioko indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak, halaber, langileak laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko indarrezko neurriak eta Donostia Kulturak eman ditzaken funtzionamendu-arau orokorrak betetzen dituztela bermatuko du.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mendeko langileak dira. Enpresa kontratistak enpresari gisa dagozkion eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu eta ezingo da erreklamaziorik egin Donostia Kulturaren aurrean, lan-harremanak edo gainerako betebeharrak direla eta.

Enpresa kontratista erantzule bakarra izango da kontratuaren gauzatzean lan egiten duten langile propio edo azpikontratatuak loturiko istripu edo erreklamazio guztien (auzitegian izan ala ez) aurrean; Donostia Kulturak ez ditu bere gain hartuko enpresa kontratistak lan arloari (laneko segurtasun, higiene eta segurtasunari buruzkoa barne), Gizarte Segurantzari edo ogasunari dagokienean hartu dituen zuzeneko edo zeharkako erantzukizunak. Halaber, enpresa kontratistak zerbitzua ematerakoan egon diren istripuen ondoriozko erantzukizun guztiak hartu beharko ditu.

e) Nolanahi ere kontratistak, lan ezberdinak gauzatzerakoan, aipatuak era egokian eta kontratuan xedaturiko epearen barruan egiteko beharrezkoak diren ekipamendu edo bitarteko osagarri guztiak jarri beharko ditu eskura; halaber, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langile guztiak kontratatu beharko ditu, lan eta segurtasun arloetako indarreko arau guztiak betez horiei dagokienean.

f) Kontratista lanen garapenean erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak Donostia Kulturaren esku uztera behartuta dago.

g) Kontratistak DPBLOK eta aipatua garatzeko araudian xedaturikoak bete beharko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean eginiko jardueretan eta bere kontuz eta erabakiz erabiliko dituen izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagokionean, tratamendu horren Arduraduna baita; guzti hori, Orri honen **22. Klausulak** dioenari kalterik egin gabe.

h) Nolanahi ere enpresa esleipendunak, lan ezberdinak gauzatzerakoan, aipatuak era egokian eta kontratuan xedaturiko epearen barruan egiteko beharrezkoak diren ekipamendu edo bitarteko osagarri guztiak jarri beharko ditu eskura; halaber, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langile guztiak kontratatu beharko ditu, lan eta segurtasun arloetako indarreko arau guztiak betez horiei dagokienean.

21. KONTRATUKO OINARRIZKO BETEBEHARRAK

Ondokoak kontratuko oinarrizko betebeharrak izango dira:

a) Kontratua betetzea, bere klausula guztien edukiari, aplikagarri diren Orriei eta Donostia Kulturak kontratistari helarazten dizkion jarraibide guztiei jarraiki.

b) Kontratuaren gauzatzearen barnean sartzen diren operazioen ondorioz hirugarrenei sorturiko kalte-galera guztiak ordaintzea.

c) Eskaintzan konprometitu diren giza baliabideak kontratuari atxikitzea.

d) Jarduerarako beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea.

e) Lan (hitzarmen kolektiboa, ordainsariak, etab), Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan indarrean dauden legez xedapenak betetzea; aipatua ez eginez gero, Donostia Kulturak ez du inolako erantzukizunik izango.

f) Donostia Kulturak kontratuaren garapen eta gauzatze egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak (lan- edo informazio-bileretara joatea, esaterako) eskaintzea, ordain osagarriak jaso gabe. Betebehar hau bermepea bukatu edo, bere kasuan, kontratua bukatu arte egongo da indarrean.

g) Langile guztiek bidezko kontratua izango dute eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egongo dira, kontratistaren kontura soilik. Ez da inolako harreman juridikorik egongo aipatu langileen eta Donostia Kulturaren artean, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ezta beste edozein unean ere.

Donostia Kulturak langileen lan-kontratua edo Gizarte Segurantzako afiliazioa aurkeztea eska diezaioke, uneoro, esleipendunari.

Langileek ez dute inolako lan-harremanik izango, inolaz ere, Donostia Kulturarekin; era berean, aipatua ez da subrogatua izango kontratistaren eta bere langileen arteko kontratuko harremanetan.

h) Gutxieneko zerbitzuak betetzea greba egunetan. Aipatua egingo ez balitz Donostia Kulturak zerbitzuak betetzeko beharrezkoak diren kontratuak egiteko aukera izango du. Horien prezioa esleipendunari kenduko zaio, ordaindu beharreko dirutik.

Grebak irauten duen bitartean, eskaintzen diren zerbitzuei dagokien prezioa ordainduko da soilik.

i) Langileen ordezkapena, beren zeregina eta horren iraupena direnak direla, aipatuek ez balute beren lana beharrezkoa den eraginkortasun eta diligentziaz egiten, gaitasunik ez balute, tentu handirik ez balute kontratatu zerbitzua eskaintzerakoan edo kontratuaren garapen onerako kaltegarriak diren ekintzak egingo balituzte. Guzti hori, Donostia Kulturak enpresa kontratistari eskaera egin eta hurrengo 72 orduotan. Langileen ordezkapenak ez diote erantzukizunik ekarriko Donostia Kulturari, kontratista eta langileen arteko harremanei dagokienean, eta Donostia Kulturako aurretiko oniritzia izan beharko dute.

j) Gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarren ondoriozko absentiak betetzeko langileak kontratatzea, kontratatu zerbitzuaren eskaintza eraginkor, etengabe eta berdina bermatuz. Guzti hori, Donostia Kulturak enpresa kontratistari eskaera egin eta hurrengo 72 orduotan. Aipatu ordezkapenak Donostia Kulturako aurretiko oniritzia izan beharko dute.

Klausula honetako betebeharrak kontratuko oinarritzko betebeharrak izango dira SPKLTBren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, aipatuak ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo Donostia Kulturak.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratu honetan sarturiko zerbitzuen eskaintzak ondokoak eskatuko ditu, beren edukari dagokionean: (i) kontratistak datu pertsonalen tratamendua egin beharko du Donostia Kulturaren kontura; eta (ii), kontratista Donostia Kulturako jabetza diren fitxategietan sarturiko datu pertsonalak erabiltzeko gai izango da.

Testuinguru horretan, kontratistak DPBLOn ezarritakoa (9., 10. eta 12. artikulua bereziki), DPBLO garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DPBLOA) ezarritakoa eta aipatuak garatzen dituzten beste xedapen guztiak bete beharko ditu.

Ondorioz, eta DPBLOk hala dioelako kontratistak, Tratamenduaren Enkargatua den heinean, datuak erabili ahal izateko beharrezkoa den kontratua sinatu beharko du Donostia Kulturarekin. Kontratuak DPBLOren 12. artikulua eta DPBLOaren 20. artikulua xedatzen dituzten eduki eta izaera izango ditu.

Datuak erabili ahal izateko aipatu kontratua lizitazio honen xede den kontratua sinatzeko une berberean sinatu beharko da.

Nolanahi ere, eta datuak erabili ahal izateko kontratuak dioena alde batera utzita, kontratazio honen xede diren zerbitzuen eskaintzari lotuta, enpresa kontratistak ondoko neurriak hartuko ditu:

- a) DPBLO, DPBLOA eta kontratua esleitzeko egunean edo bere iraupenean zehar indarrean egon daitezkeen beste garapen-neurri guztiak bete beharko ditu.
- b) Indarreko legediak datu pertsonalak babesteko aurreikusten dituen interesatuari informatzeko eta horren oniritzia jasotzeko betebeharrak beteko ditu.

Horretarako, eta adierazpen huts gisa, kontratistak beharrezko baliabideak erabiliko ditu (esaterako, informazio-klausulak formulario eta interesatuekin erabiliko diren dokumentu guztietan, etab.), ondokoak zehaztuz edozein kasutan:

- Datuen tratamendua Donostia Kulturaren kontu egiten dela eta kontratazio honen xede diren jarduerak gautzeko helburuarekin;
 - Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzerakoan lorturiko datu pertsonalak Donostia Kulturaren jabetza den fitxategi batean sartuko direla; eta
 - Donostia Kultura, ondorioz, tratamendu horren Arduradun bakar eta eskusiboa dela, kontratista Tratamenduaren Enkargatua delarik soilik.
- c) Beharrezko segurtasun neurriak hartuko direla, DPBLOarekin bat.
- d) Ez da frogarik egingo Donostia Kulturako jabetza diren fitxategietatik ateratako benetako datuekin.
- e) Donostia Kulturak eskatuta, Donostia Kulturaren kontura trataturiko datuen eta honek emaniko dokumentu guztien konfidentzialtasuna eta osotasuna mantentzeko aplikatu diren neurrien txosten deskriptiboa entregatuko dio.
- f) Aipatu segurtasun-neurrien aplikazio eta jarraipenaz zuzenean arduratzen den/diren pertsona/ak jakinaraziko dizkio Donostia Kulturari.
- g) Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauetatik datozen betebeharrak jakinaraziko dizkie langileei.
- h) Kontratista eta lizitazio honen xede den kontratua gauzatuko duten bere langileak kontratua indarrean egon den bitartean maneiatu dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko sekretu profesionala gordetzera behartuta daude, bai eta aipatuak behar bezala gordetzera.

23. KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BEHARRA

Esleipenaren publizitateari eta lizitatzailerei eskaini behar zaien informazioari buruz Orri honek dioenari kalterik egin gabe, Donostia Kulturak ezingo du lizitatzailerek konfidentzialtzat jotzen duten beren informazioa zabaldu; baldintza honek sekretu tekniko eta komertzialei eragiten die bereziki.

Kontratatistak kontratua gauzatzean zehar maneiatzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gorde beharko du, kontratuko Orriek aipatua konfidentziala dela zehaztu badute; baita informazioaren izaerak hori egitea eskatzen badu ere.

Konfidentzialtasuna gordetzeko behar honek ez du amaierarik.

24. JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina Onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak kontratistari eskaintzen dizkion

egile-eskubide moralei kalterik egin gabe, Donostia Kulturak halabeharrez bete beharko dituenak, kontratazio honen xede diren zerbitzuen gauzatzean kontratistak egiten dituen dokumentu, material eta edukiak (oharrak, prentsa txostenak, koordinazio dokumentuak, balorazio txostenak, behin betiko txostena, etab.), osotasunean zein partzialki eta beren egoera dena dela, Donostia Kulturaren jabetza osoa izango dira. Guzti hori SPKLTBren 301.2 artikulua dion gain, artikulua erabat aplikagarria baita kontratazio honetan.

Ondorioz, aipatu osagaiei dagozkien erabilera eskubideak, ustiapen eskubideak (erreproduzio eskubidea, hedatze eskubidea, publikoki osotasunean edo partzialki komunikatzeko eskubidea, itzultzeko, moldatzeko edo edozein moduan eraldatzeko eskubidea) eta, orokorrean, osagai horien gaineko Jabetza Intelektualaren inguruko ondare-izaerako eskubide guztiak Donostia Kulturakoak dira soilik, mundu osorako eta legean zehazturiko gehieneko epean. Azken honek mugarik gabe erabiltzeko aukera izango du, egoki deritzon irizpideak aplikatuz.

Testuinguru honetan kontratistak, kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzen dituen bitartean eskatzen zaion bakoitzean eta, edozein kasutan, aipatuak amaitzerakoan, kontratatutako zerbitzuak gauzatzeko sorturiko dokumentu, material eta/edo edukia guztiak, beren euskarria dena dela, Donostia Kulturaren eta/edo honek izendatzen duen pertsonen esku uzteko konpromisoa hartzen du.

Era berean, kontratistak aipatu dokumentu, material eta edukien erabilera askea eta jabetza bermatu beharko dio Donostia Kulturari eta beharrezkoa denean aipatuak garatzeko edo osatzeko erabilitako edozein osagairen gaineko beharrezko baimenak lortu beharko ditu, legea betez eta iturri baimenduen eskutik. Bestalde, aipatuak entregatzerakoan Donostia Kulturari bermatu beharko dio, halaber, Klausula honetan xedatukoaren aurka doan inolako konpromisorik edo betebeharririk ez duela hartu, aipatu dokumentu, material eta edukiei dagokienean.

Edozein kasutan, kontratista erantzule bakarra izango da kontratutik at dauden hirugarrenek aurkeztu dituzten Jabetza Intelektualaren inguruko erreklamazioen aurrean eta kalte ordainak ordaindu beharko dizkio Donostia Kulturari, kontzeptu hauei lotuta egon daitezkeen erreklamazio guztien ondorioz.

Aurreko guztia kontratu honen prezio gisa kontratistak jasoko duen gehieneko kopurua kalkulatzeko aintzat hartua izan da.

25. ZEHAPENAK

Enpresa kontratistak bere ardura diren arrazoiengatik atzerapenez jokatuko balu proposatu edo zehazturiko egutegian zehaztutako exekuzio-epeekiko, bere kasuan eta Preskripzio Teknikoen Orriko **3. Klausulan** zehazturikoarekin bat, Donostia Kulturak bi aukera izango ditu: alde batetik, kontratua bertan behera uztea **31. Klausulak** dioenaren arabera; edo

bestetik, bere gauzatzearekin jarraitzea, 50 euroko zehapena ezarriz eguneko.

Nolanahi ere, Klausula honen ondorioz ezarritako zehapen guztiak sorturiko kalte-galerei gehituko zaizkie.

Era berean, enpresa kontratistak gauzatze kaskarra egingo balu edo bestelako kontratuko betebeharrak beteko ez balitu, atzerapenez gain, Donostia Kulturak sorturiko kalte-galerei ondoriozko ordaina egitea eska diezaioke kontratistari.

Kontratuaren gauzatzearekin jarraitzea erabakiko balu ere, atzerapen edo exekuzio kaskarraren ondoriozko ez-betetzeak mantentzen diren bitartean Donostia Kulturak kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, aipatu eraginekin.

Zehapenek pilatutako kopurua kontratistari ordainketa bakar edo partzial gisa ordaindu behar zaion prezioetik edo behin betiko bermetik kenduta gauzatuko da, lehen kasua ezinezkoa denean. Zehapena bermea baino handiagoa izango balitz, dagokion erreklamazioa aurkeztuko da.

Nolanahi ere, kontratua bertan behera utzi edo horrekin jarraitzea erabakiz gero, Donostia Kulturak zerbitzuen jarraipena erabaki dezake, bere kabuz, egoki deritzon epean zehar eta hirugarrenen bidez. Ekintza horren kostua kontratistari egotziko dio, Klausula honetan xedaturiko kalte-ordainei eta zehapenei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratu honetatik sorturiko eskubide eta betebeharrak lagatzeko aukera bakarra da Donostia Kulturaren berariazko eta idatzizko baimena lortzea eta beti ere aipatuak jasoko dituen hirugarren horrek Donostia Kulturarekin kontratatu ahal izateko Orri honetan xedaturiko baldintzak betetzen baditu, kontratatzeako debekurik ez badu eta Orri honetan xedaturiko gutxieneko bitartekoen eta bitarteko osagarrien baldintza betetzeko konpromisoa hartzen badu. Guzti hori, lagatzearen xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienean.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honetatik sorturiko eskubide eta betebeharrak azpikontratatzeako aukera bakarra da Donostia Kulturaren berariazko eta idatzizko baimena lortzea eta beti ere azpi-kontratistak Donostia Kulturarekin kontratatu ahal izateko Orri honetan xedaturiko baldintzak betetzen baditu, kontratatzeako debekurik ez badu eta Orri honetan xedaturiko gutxieneko bitartekoen eta bitarteko osagarrien baldintza betetzeko konpromisoa hartzen badu. Guzti hori, azpikontratatuaren diren zerbitzu(ar)en prestazioari dagokio(e)nean.

Azpi-kontratistak esleipendunaren aurrean behartuta daude soilik; ondorioz, azken horrek du zerbitzua Baldintza Ekonomiko Administrazioaren Orriarekin,

Preskripzio Teknikoen Orriarekin eta sinaturiko kontratuaren baldintzekin bat gauzatzeko ardura bakarra Donostia Kulturaren aurrean.

Eta hori, Orri honetako **12. Klausulak** xedatzen duen giza baliabideak kanpoko bitarteko gisa atxikitzeak aukerari kalterik egin gabe.

28. KONTRATUA ALDATZEA

SPKLTBren 107. artikulua xedaturiko baldintzak emango balira, Kontratazio-organoak kontratua aldatzeko gaitasuna izango du.

29. KONTRATUA ETETEA

Donostia Kulturak kontratua etetea erabakiko balu edo aipatu etena SPKLTBren 220. artikuluari jarraiki (aplikagarria ondorio hauetarako) gertatuko balitz, etenaren arrazoiak eta kontratuaren gauzatzearen egoera azalduko duen akta bat egingo da.

Etena erabakita, Donostia Kulturak izan dituen egiazko kalte-galerak ordainduko dizkio kontratistari.

30. PRESTAZIOA JASOTZEA

Kontratua amaitutzat joko da, enpresa kontratistari dagokionean, honek prestazio osoa gauzatu duenean, kontratuaren baldintzekin bat eta Donostia Kulturaren oniritziarekin.

Nolanahi ere, Preskripzio Teknikoen Orriko 3. Klausulak dioenarekin eta esleipendunak proposaturiko egutegiarekin bat, jasotze partzialak egingo dira kontratuaren gauzatzean zehar. Horiek, kontratuaren xede diren ataza ezberdinei lotuta egongo dira.

Jasotze partzial bakoitzean, bai eta amaiera jasotzean ere, Donostia Kulturak erabakiko du enpresa kontratistak kontratuaren gauzatzea bere baldintza eta betebeharrak betez egin duen ala ez; egoki baderitzo, kontratatutako zerbitzuen gauzatzea edo bere harreran egondako akatsak zuzentzea eska diezaioke kontratistari.

Egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin bat ez badatoz, enpresa kontratistaren ardura diren akats edo bizioen ondorioz, Donostia Kulturak aipatuei uko egin diezaike eta, ondorioz, horiek ez ordaintzeko gaitasuna eta horiengatik ordainduriko dirua berreskuratzeko gaitasuna izango du.

Eta hori, **25. Klausulak** dioenari kalterik egin gabe; hau da, Donostia Kulturak xedaturiko zehapenak eska ditzake, bai eta atzerapenagatik, kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala ez gauzatzeagatik edo beste ez-betetze guztiengatik dagokion kalte-ordainaren ordainketa ere.

31. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

Kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango dira SPKLTBren 223. artikuluen a) -85. artikulua dioenari kalterik egin gabe-, b), c), d), e), f), g) eta h) hizkiek xedaturikoak eta, orokorrean, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikulua zehazten duen bezalaxe.

Klausula honek kontratua bertan behera uzteko xedatzen dituen egoera guztietan automatikoki aplikatuko da aipatua. Baldintza bakarra da Donostia Kulturak enpresa kontratistari bidali beharko dion jakinarazpen ohartarazlea.

Aipatu jakinarazpena jaso eta gero, enpresa esleipendunak berehala entregatu beharko dizkio Donostia Kulturari, honek hala eskatzen badio, kontratatu zerbitzuaren gauzatzean data horretara arte sorturiko dokumentu guztiak, Donostia Kulturak entregatu zizkion dokumentu guztiekin batera.

Donostia Kulturak gauzatze-maila zehaztuko duen akta bat egingo du; honela, betetzat jotzen dituen zerbitzuak definituko ditu eta baita bete gabe gelditu direnak ere, ez-betetze horren zioekin batera. Horrela, Donostia Kulturak kontratuaren gauzatzearekin jarraitu ahal izango du, bere kabuz edo hirugarrenen bidez.

Guzti hori, egin beharko den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe. Aipatu likidazioa ondoko baldintzei jarraiki egingo da.

Klausula honetan zehazturiko arrazoen ondorioz eta indarreko legediak zehazten dituen guztietako edozeinen ondorioz kontratua bertan behera geldituko balitz, erantzukizun ekonomikoak kontratua egiaz bertan behera utzi eta dokumentu guztiak entregatu eta gero kitatuko dira; egintza horrek ez du eraginik Donostia Kulturak gauzatzearekin jarraitzeko har dezakeen erabakiarengan.

Kontratua bertan behera geratzen den guztietan enpresa kontratistak, printzipioz, gauzaturiko lan guztiei dagokien prezioa jasotzeko eskubidea dauka.

Kontratua bertan behera uzteko arrazoia enpresa kontratistaren ardura denean Donostia Kulturak, dagokion kalte-galera eta kalte-ordain guztiei kalterik egin gabe, eta aipatuei gehituta, kontratuari esleituriko balioaren % 20 kenduko dio ordaindu beharreko kopuruari.

Aipatutako kopuruak behin betiko bermetik eta enpresa kontratistak jasotzeke duen preziotik kenduko dira eta, bere kasuan, zehapena azken biak baino handiagoa balitz, dagokion erreklamazioa aurkeztuko da.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak pribatuak dira. Beren prestaketa eta esleipena Klausula Ekonomiko Administratiboen Orrian eta Preskripzio Teknikoen Orrian araututa dago eta aurreikusi ez den osagai orori dagokionean, Donostia Kulturako kontrataziorako barne-jarraibidean eta SPKLTBk herri-

administrazio ez diren eta botere esleitzailerik ez diren sektore publikoko entitateen arteko arauketa hamonizatupekoak ez diren kontratazio prozedurak arautzeko xedatzen dituen arauetan.

Bere eragin eta iraungipenari dagokienean, kontratua Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautuko dute eta horiez kanpo gelditu diren osagaiei dagokienean, zuzenbide pribatuaren arauak. Nolanahi ere, SPKLTBren I. Liburuko V. Tituluak kontratuen aldaketei buruz xedatzen dituen arauak ere aplikatuko zaizkio kontratuari.

Azkenik, Orri honek aipatu arau-testuak aipatzen dituen guztietan SPKLTB, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 ED eta APKLAO aplikatuko dira.

33. ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibila izango da kontratuaren prestaketa, esleipen, eragin, betetze eta iraungipenaren inguruan sor daitezkeen auziak konpontzeko eskumena izango duena.

Auziak kontratuaren ingurukoak direnean, bi aldeek Donostiako Epaitegi eta Auzitegiara joango dira.

Donostian, 2015eko urriaren 21ean.

Jaime Otamendi

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari Kudeatzailea

